

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Karobi-ezteiak

KAREGINTZA negu parteko lana zen. Belarrak ondu, soroetako uztak mandioratu eta inaurkinak metatu ondorenekoa. Kare-harria eta su-egurra pila asarreak inguratu behar ziren karobi edo kisu-labe-  
ra; kare bizia emango duen harria hausteko tenperatura altuetan erre behar baita. Bi eratako labeak erabili izan dira: arragoa eta zakarrezkoa. Arragoan, edo frantses-karobian, erabilitako teknikak zaharrena dirudi. Izenak dioen eran, karobi zulo honetan erregaia eta harria nahasian sartzen ziren. Hasteko egur mordo bat eta harri maila bat gainean. Labearen beheko atakatik kare hautsa atera ahala goiko zulotik egur eta harriz bete. Nahi adina denbora eduki daiteke arragoa erako karobia erretzen. Zakarrezkoa edo zakar-karobiak teknika landuagoa eskatzen zuen. Labearen beraren eraikuntza finagoa zen eta haren barruan kare-harrizko ganga sendoa antolatzen jakitea eskatzen zuen; arte ederra. Gangaren gaina harriz bete eta gero beheko atakatik gau eta egun etengabe egurra sartuz lau bat

egunez sutan eduki behar zen. Keri erreparatuta zekiten noiz itzali sua.

Sastraka, sasi, ezpal, adar, enbor eta bringa, denetako gurdikak behar ziren honelako labe bat etengabe erretzen edukitzeko. Elorri-triska (*Genista scorpius*), otabera (*Genista hispanica*), oteak (*Ulex sp.*), elorri zuriak (*Crataegus monogyna* eta *C. laevigata*), hesilaharra (*Rhamnus catabarticus*), ena (*Rhamnus lycioides*), txilarrak (*Erica sp.*), ezpela (*Buxus sempervirens*), gaztaina (*Castanea sativa*), pagoa (*Fagus sylvatica*)... denetatik erabili izan da.

Bergara aldeko langintza zaharren berri ematen duen liburu gomendagarrian jasotzen denez, Elgetako Azula baserriko Candido Elortzak dio pagoadarrez egindako gerriaren neurriko 2.000 sorta prantatzen zituztela karobia erretzeko. Beste liburu batek, Domingo de Agirrerren *Garoa*-k, karobiko lanak amaitutakoan mozkortzerainoko eztei handiak egiten zirela dio: karobi-eztegua, karobi-eztaia edo kislulabe-besta.



## Berokia jantzita

Neguari aurea hartuz, udazkenean bufanda jartzen zaie baratza-karduei, *Cynara cardunculus*. Hotza datorrenez, landareak azala loditu eta zakartzera bideratu ohi du energia. Bufandarekin, aldiz, energia hori hostoetan eta haien zortenetan geldituko da. Horrez gain, paperezko, zakuzko, oihalezko... izan daitekeen berokiak argitik babesten du kardua eta berde beharrean zuri azalduko da. Zuritasun hori da aho-sabaia kitzikatzen duen mikatz puntu fina eransten diona. Zuriaren gustu horixe bera bilatzen da esparragoetan, orburuetan, letxuetan, eskaroletan, endibiatan...

## Esaera

“Lurra neguan pausatzen,  
primaderan iratzartzen”

## 152

Ehun eta berrogeita hamabi metro zen inoiz neurtu den zuhaitzik garaiena, 1.872an Victorian (Australia) erori zen Tasmaniako eukalipto bat, *Eucalyptus regnans*. Egunduz gertatu den espezie horreetako zuhaitzik luzeenak 94 metro ditu. Styx-en, Tasmanian, bizi da eta 400 urte ingurukoa omen da.

Aditu batzuen arabera ezinezkoa da 140 metro baino luzeagoko zuhaitzik izan, kapitalitate eta grabitatearen arteko orekan izerdiak ezin bailuke gora jo.

